

Jose Luis Gerestaren heriotza

Pistola Gerestaren ezker aldean agertu zen, tiroa eskuinean jaso bazuen ere

Eginbide judizialean jasotzen da datua, eta suizidioaren bertsioa zailtzen du

Pello Urzelai / Donostia

Jose Luis Gerestaren gorpua jaso eta begi azterketaren eginbide judizialean jasotzen denez, hiltzeko arma zerraldean ezker aldean zegoen eta bala, aldiz, eskuin aldetik sartu zen. Datu horiekin zaildu egin da suizidioaren hipotesia, batez ere gorpua ahoz gora zegoela kontuan hartuta.

JOAN den larunbatean Jose Luis Geresta ETAko ustezko militantea Errenteriako Zamalbide auzoko zelai batean hilik aurkitu zutenean, gorpua jaso aurretik guardia-ko epaileak, forentseak eta idazkariek lagunduta eta polizia judizialen aurrean begi azterketa egin zen. «Gorputzaren ondoan eta ezkerrean pistola bat atzeman da belarraren gainean, 22 kalibreakoa, baita Minor-Leig 15 puru kutxa txiki bat». Horrela irakur daiteke EGUNKARIAK eskuratu duen eginbide judizialaren idazkian. Segidan tiroaren berri ematen du aipatutako idazki judizialak: «Mediku forentseak zehatzaz aztertuta, hildakoak bala sarrera zulo bat dut eskuineko lokian eta irtera zuloa beste aldeko lokian». Beraz, tiroa eskuineko lokian jaso bazuen eta pistola ezker aldean bazegoen, ulertezina da suizidioaren hipotesia. Bere



EDURNE KOCH

Jose Luis Gerestaren gorpua topatu zuten Errenteriako Zamalbide auzoko zelaia.

buruz beste egin zuela argudiatu nahi duenak pistolaren kokapena azaltzeko arrazoi berezi bat ematera behartuta dago, kasu hauetan ohikoena eta logikoena pistola tiroaren aldean agertzea baita.

Itxaso Idoiaga medikuarekin hitz egin ostean, hark adierazi zion EGUNKARIAri gorputza trabeska egonda ez litzatekeela harrigarria izango pistola gorpuarekin ezkerrean topatzea, baina, aldiz oso harrigarria litzatekeela pistola ezkerretan egotea gor-

pua buruz gora bazegoen. EGUNKARIAK gorpua ikusi zuen Zamalbideko bizilagun batekin hitz egin zuen, eta honek baieztatu zuen gorpua erabat buruz gora zegoela. Lekukoaren arabera, gorpua buruz gora zegoen zabal zabal, «jendeak eguzkia hartzen duenean jartzen den moduan». Datu honek, beraz, Gerestak bere buruz beste egin zuenaren datua zailtzen du.

Gorpua jaso aurretik egin dako azterketa hartan beste

zenbait datu jasotzen dira aipatuko eginbide judizialean. Esaterako, belarretan zauritzaioak zituela.

Bestetik, hasiera batean balazorroa ez zutela topatu azaltzen du txostenaren egi-leak. Gerora, ordea, antza ertzainek topatu egin zuten balazorroa.

Gorpuak behintzat ordu batzuk hilik zeramatzala hilik ere agertzen du lehen ikusketa horrek, izan ere, gorpua erabat gogortua zegoela azaltzen du.

Donostiako fiskalak diligentziak ireki ditu Otegik Gerestaren heriotzari buruz egin adierazpenengatik

Agentziak / Madril

DONOSTIAKO Fiskaltzak diligentziak ireki ditu Herri Batasunako buruzagi eta EHko legebiltzarkide Arnaldo Otegik iragan igandean egindako adierazpenengatik. Jesus Cardenal Estatu-ko fiskal nagusiak herenegun iragarri zuen Otegiaren aurkako neurriak hartuko zituztela, eta Donostiako fiskalak atzo bertan ireki zituen haren kontrako diligentziak.

Otegik Jose Luis Gerestaren heriotza estatu krimena

izan zela adierazi zuen iragan igandean, haren gorpua identifikatu ostean emandako prentsaurrekoan. Arnaldo Otegik Geresta «eraila» izan dela adierazi zuen, Gerestaren heriotza «estatu aparailuek egindako krimen» gisa definituz. Hori dela-eta, adierazpen horietan delitu aztarnarik dagoen ikertzeko asmoz, Navajasek diligentziak irekitzea erabaki du, Cardenal fiskalarekin elkarlanean.

Donostiako fiskalak dagokeneko hainbat dokumentu

eskatu ditu, ikerketarekin hasteko. Hala, Ertzaintzari eskatu dio idatzizko komunikabideek igandeko prentsaurrekoan egin jatorrizko grabazioak lortu eta Fiskaltzari eman diezaizkioa. Bestalde, fiskalak eskatu du Ertzaintzarak ETBk egindako grabazioaren kopiak lortzea.

Eusko Legebiltzarrari ere zuzendu zaio fiskala bere diligentzietan, Arnaldo Otegiaren legebiltzarkide kargua baieztatu dezala eskatuz. Eusko Legebiltzarreko Idaz-

karitzak egiaztatu egin beharko du Otegi Euskal Herritarrok taldeko legebiltzarkidea dela. Izan ere, kargu hori izateagatik Otegi buruzko ikerketak EAEko Auzitegi Nagusiak egin behar ditu.

Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroak, bestetik, "zentsuzkoa eta neurrizkoa" iritzi zion fiskalak diligentziak irekitzeari. Mayor Orejaren arabera, Otegik egindako adierazpenak "probokatzailerak" dira.

Balzak dioenez, «gaur egun» ez du planteatzen AABei isunak barkatzea

■ Guztira 134 milioi pezetako zorra dutela adierazi du

L.K.G. / Gasteiz

JAVIER BALZA Barne sailburuak «gaur egun» ez du planteatzen Amnistiaren Aldeko Batzordei jarritako isunak barkatzea. Hala esan zuen atzo goizean Eusko Legebiltzarreko batzordean PPko Carlos Urkijo parlamentarioak «diru zigorrak barkatzeko formulaz» galdetutakoari erantzunez, eta, zehatz-mehatz, zorra barkatzearen aldeko ote den itaundu ondoren.

Sailburuaren arabera, egun 134 milioi pezetako zorra dute (5 milioi libera). Hala ere, zehaztu zuenez, berez ez dira AABen aurkakoak, pertsona batzuen kontrakoak baizik.

Balzak bi barkatze mota daudela esan zuen: penala eta administratiboa. Bigarrena arau juridikoek behar bezala babesturik dagoela esan zuen. «Guztiz posiblea da juridikoki», argitu eta aipatu isunei aplikatzeko modukoa dela onartu zuen. Kasu horretan, barkatze penalean ez bezala, Jaurilaritzak eman beharko lukeela ezagutarazi zuen.

EAEn bizi behar duten arren, 169 ertzain kanpoan bizi dira

L.K.G. / Gasteiz

GAUR egun 169 ertzain Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi direla adierazi zuen Javier Balza Eusko Jaurilaritzako Barne sailburuak atzo goizean Eusko Legebiltzarreko batzordean egindako agerraldian.

Kontseilariak berretsi zuenez, EAetik at bizi diren polizia autonomikoak ez dira legalitatea betetzen ari, zenbait arautegik exijitzen baitute ertzainek diharduten komunitatean bizi beharra daukatela. Horregatik, Poliziaren legea betetzeko deia egin zien.

Izan ere, Balzak aipatu bezala, ertzainek «egoitzari buruzko eginbeharra» bete behar izaten dute lege. «Ertzain bat ertzaina da zerbitzuan ez dagoenean ere», adierazi zuen.